

Nature, Aesthetics, and Environmentalism. From Beauty to Duty

ALLEN CARLSON & SHEILA LINTOTT (ARG.)

New York: Columbia University Press, 2008, ix + 458 or.

Ohiko jarrera izan da estetika ikasketetan ahalegin guztiak arteari baino ez eskaintzea. Hala eta guztiz ere, teoria estetikoan hamazortzigarren mendearen hasieratik oso garrantzitsuak izan diren kontzeptuen artean asko naturarekin estuki erlazionatuak izan dira. Pentsatu, esaterako, Kantek bere hirugarren kritikan natura eta konkretuki paisaiari eskaintzen dizkien gogoetaz, sublime denaren kontzeptuaz hausnartzerakoan. Dena den arraroa izan da artetik kanpoko beste fenomenoetara jotzea estetikaren terminoetan gogoeta egiteko. Baina azkenengo garaietan artea eta teoria estetikoaren arteko erlazioa pentsatzeko modua aldatuz joan da, estetikaren ideia zabalduz. Egun artea eta estetika desberdindu egiten dira orokorrean, estetikaren barruan arteaz aparte gauza gehiago sartuz.

Liburu honek dakarkigun ingurumenaren estetika (environmental aesthetics) da adibiderik garrantzitsuenetariko bat. XX. mendeko bigarren zatian zabal hedaturiko eremua da hau. Eskuliburu honen ardura gaian aditu handia den Allen Carlsonek du editore gisa hain zuzen. Naturarekiko gizakiok daukagun jarrera estetikoak da bere abiapuntua, bidean etikaz, zientziak eta erlijioaz hausnarketa eginez. Nahiz eta antzinatek gizakiek natura balioetsi duten literaturan (eta orokorrean artean, artea naturaren ispilua zela pentsatu baita), erlijioak bitartekari izan dira beti. Ez da izan garai modernora arte, artearen sekularizazioa eta zientzia modernoak sortu arte, hain zuzen ere, natura ikusteko beste era bateko perspektibarik.

Filosofia modernoarekin estetikaren arloa bera jaio zen, eta ordutik hona hedatzen da ingurumenaren estetika. Liburua azkenengo hamarkadetan arlo horretan idatzitako lan nagusi batzuen antologia da. Testuak banan bana jarraituz ikerketa arlo horren sorkuntza eta garapena ikusten dugu. Tematikoki antolatuta dago, lau partetan sailkaturik eta zati bakoitza sei artikuluz osatuta. Bildumaren hasieran gaiari sarrera oso interesgarria ematen diote Carlson eta Lintott editoreek, naturaren estetikaren historiaren urratsik nagusienak aipatuz. Parte bakoitzaren hasieran sarrera moduko testua eskaintzen dute, ondoko kapituluetan gaiaren eta ekarpenen aspektu eta argumentu garran-

tzizkoenak zein diren aurkeztuz. “Historical foundations” lehen partean tradizio angloamerikarrean funtzeskoak izan diren ingurumenari buruzko pentsalari klasikoen zenbait artikulua datoz eta aipamen berezia merezi dute Burroughsen eta Emersonen kapituluek.

“Nature and Aesthetic Value” bigarren partean natura nola era aproposan balioetsi dezakegun eztabaidatzen da. Ezagutza zientifikoaren bidez (Matthews, Carroll), bere termino propioetan (Saito), edo gauza misteriotsu ezagutezin bat (Goldovitch) bezalako aukerak ematen dira kapitulu ezberdinetan. Ekarpen hauetan datorkigun galderarik garrantzitsuena natura estetiki balioestea zer ote den da. Hau da, zein da zientzilaria eta poetaren arteko ezberdintasuna natura balioesten dutenean? Zer ezagutza behar dugu naturaren balioespen estetikoaren egin ahal izateko?

Hirugarren parteak, “Nature and Positive Aesthetics” gatazkatsua da. Hemen planteatzen den galdera ez baita batere erraza. Estatu eta erakunde garaikideek naturaren zenbait alderdi babestu egiten dute. Gehienak daukaten edertasunagatik justifika daitezke. Baina zer egiten dugu itsusiak diren naturaren parteekin? Carlsonek proposatzen duenaren arabera, naturaren parte guztiek beren balio estetiko positiboa daukate, natur zientziak ematen dizkiguten kategorien barruan era aproposan sailkatzen baditugu. Baina erai-ki nola estetika positibo bat? Carlson kapituluarekin batera aipamen berezia merezi dute Thompsonen eta Parsonsen kapituluek.

Azken parteak estetika, etika eta ingurumenaz dihardu. “Nature, Aesthetic Value, and Environmentalism” titulupean naturaren balioespen estetikoaren eta erlazio etikoaren arteko harremanak jartzen dira kolokan. Gizakiok zergatik naturarekiko harreman etikoak eduki behar ditugun eta zergatik harreman horiek balioespen estetikoan oinarritu behar ditugun eztabaidatzen da. Hortik dator liburuaren azpitituluak: “From Beauty to Duty”, hain justu Holmes Rolstonen kapituluaren titulutik. Teknologiaren garapen azkarreko garai honetan agerikoak diren ingurugiro arazoak etikarekin lotuta daudela defenditzen da azken kapitulu hauetan, naturarekiko daukagun pertzepzio moduarekin zehazki. Ingurumenaren babesarako balio estetikoek balio etikoek baino pisu handiagoa izan dute sarri askotan. Ameriketako zenbait parke natural babestu egin dira justu ederrak direlako, besterik gabe. Hori diote Allen Carlson eta Sheila Lintott editoreek. Naturari buruzko hausnarketa estetikoak izan ote daiteke naturarekiko etikaren oinarria? Hori da Rolstonen galdera nagusia bere artikuluan. Etika eta estetika arteko eremuan diharduen bilduma da liburu hau, beraz. Ondo prestatutakoa eta ondo antolatutakoa, kapitulu bakoitzaren amaieran ohar askoz hornitua. Zoritxarrez erreferentzia bibliografikoak ez dira ugariak. Bukaeran indize bakarrean jasotzen dira izenak eta gaiak.

Aitor Izagirre
ILCLI